

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### UE-19B egikaritze unitatearen birpartzelatzeko proiektua behin betiko onestea

Urriaren 26an eman zitzaion hasierako onespena, eta urriaren 27an jarri zen jendaurrean Diario de Álava egunkarian, eta ALHAOn (127 zk.) eta udal-iragarkien taulan, eta 2021eko azaroaren 8an. Interesdunei zitazio pertsonala egin zitzaion. Hogei eguneko epea amaitu da, eta epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Alkatearen abenduaren 22ko ebazpen bidez, honako hau ebatzi da:

Lehen a. Behin betiko onestea UE-19B egikaritze unitatearen birpartzelatzeko proiektua, Nuria Oliviera Caneda arkitektoak idatzitako 2021eko ekaineko testu bateginaren arabera.

Bigarrena. Birpartzelazio espedientearen behin betiko onespena argitaratzea, birpartzelazioak zuzenean eragiten dien jabeei eta gainerako interesdunei jakinarazpen pertsonala eginez.

Hirugarrena. Hirigintza Kudeaketari buruzko Arautegiaren (HKA) 174. artikulua agindutakoa betez, birpartzelazio proiektua formalizatzea, eskritura publikoa emanez edo erabakien aktetarako xedatutako solemnitateak eta baldintzak biltzen dituen administrazio agiria emanez, Hirigintza Kudeaketari buruzko Arautegiaren 113.1 artikulua adierazten duen edukiarekin. Agiri hori Jabetza Erregistroan inskribatu behar da.

Eta hori guztia argitara ematen da, eta adierazten da egintza hau behin betikoa dela administrazio bidean. Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio alkatezari, hilabeteko epean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago bi errekurtsoak batera jartzetik.

Lapuebla de Labarca, 2021eko abenduaren 22a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**